

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ASTIGARRAGAKO UDALA

Kultura eta euskara

*Iragarkia*

Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 70.2 artikuluan ezarritakoa betez eta bertan aurreikusitako ondorioetarako, jakinarazten da udal osoko bilkurak, 2018ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuela behin betiko onespena ematea Astigarragako Udalak ohorezko izendapenak eta sariak emateko araudia.

Aipatutako erregelamenduaren testuaren eduki osoa argitaratzen da.

Erabaki honen aurka, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzitarako Sailean, Bilbon, honako hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita bi hilabeteko epean.

Astigarraga, 2018ko ekainaren 19a.—Zorione Etxezarraga Ortuondo, alkatea. (4511)

*Astigarragako Udalak ohorezko izendapenak eta sariak emateko araudia.*

I. KAPITULUA

ASTIGARRAGAKO UDALAREN TITULU, OHORE ETA KONDEKORAZIO OFIZIALEI BURUZKOA

1. artikulua.

1986ko azaroaren 28ko 2568. Errege Dekretuan onartutako Korporazio Lokalen Antolamendu, Funtzionamendu eta Zuzenbideko Erregimenaren Arautegiaren arabera, Astigarragako Udalak izaera ofzialeko hainbat titulu, ohore eta kondekorazio eman ditzake kulturaren, zientziaren, artearen, kirolean, ekonomian, politikan edo gizarte arloan udalerraren alde egindako aparteko merezimendu edo ezohiko zerbitzuak saritzeko edo herritarrek arlo profesionalen egindako balio edo garrantzi handiko lanak saritzeko:

1. Astigarragako Seme edo Alaba Kuttun Titulua.
2. Astigarragako Ohorezko Seme edo Alaba Titulua.
3. Herri Merituaren Saria.
4. Kale, plaza edo eraikinaren izendapena.
5. Ohorezko liburuan sinatzea.

2. artikulua.

Aurreko artikuluan zerrendatutako ohorezko sari eta izendapen bakoitza emateko Astigarragako Udalak Araudi honetan jasotako jarraibideak bete beharko ditu.

Ezingo da ohorerik edo saririk eman Administrazioan goi karguren bat betetzen duen pertsonari, baldin eta Udalak horrekiko mendeko harremana badu, dela hierarkia, funtzio edo zerbitzuengatik, eta hori hala izango da aipatu egorak irauten duen bitartean behintzat.

AYUNTAMIENTO DE ASTIGARRAGA

Cultura y euskera

*Anuncio*

En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/85 de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local y a los efectos en él previstos, se hace público que en sesión plenaria celebrada el 30 de mayo 2018, se acordó aprobar definitivamente el Reglamento para la concesión de distinciones honoríficas por el Ayuntamiento de Astigarraga.

Se procede a la publicación íntegra del contenido del texto del mencionado reglamento.

Contra el presente acuerdo los interesados podrán interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en Bilbao, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de la publicación del Reglamento en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Astigarraga, a 19 de junio de 2018.—La alcaldesa, Zorione Etxezarraga Ortuondo. (4511)

*Reglamento para la concesión de distinciones honoríficas por el Ayuntamiento de Astigarraga.*

CAPÍTULO I

DE LOS TÍTULOS, HONORES Y CONDECORACIONES OFICIALES DEL AYUNTAMIENTO DE ASTIGARRAGA

Artículo 1.

Los títulos, honores y condecoraciones oficiales que según lo previsto en el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales, aprobado por Real Decreto 2568 de 28 de noviembre de 1986, podrá otorgar el Ayuntamiento de Astigarraga, con el fin de premiar especiales merecimientos o servicios extraordinarios prestados al municipio en cualquiera de los aspectos, cultural, científico, artístico, deportivo, económico, político o social, o trabajos de gran valía o relevancia realizados por personas del municipio en el ámbito profesional:

1. Título de Hijo Predilecto o Hija Predilecta de Astigarraga.
2. Título de Hijo Adoptivo o Hija Adoptiva de Astigarraga.
3. Premio al mérito ciudadano.
4. Denominación de una calle, plaza o un edificio.
5. Firma del libro de Honor.

Artículo 2.

Para la concesión de una de las distinciones honoríficas enumeradas en el precedente artículo, el Ayuntamiento de Astigarraga, habrá de observar las normas de este Reglamento.

No podrán otorgarse honores y distinciones a personas que desempeñan altos cargos en la Administración, y respecto de las cuales el Ayuntamiento se encuentre en relación de subordinada jerarquía, función o servicio, en tanto subsistan estas circunstancias.

### 3. artikulua.

Araudi honetan aipatzen diren sari eta izendapen guztiak ohorezkoak dira soilik eta ezingo dute inolako diru edota administrazio saririk ekarri.

## II. KAPITULUA

### ASTIGARRAGAKO SEME EDO ALABA KUTTUN ETA OHOREZKO SEME EDO ALABA TITULUEI BURUZKOAK

#### 4. artikulua.

Astigarragako Seme edo Alaba Kuttun Titulua Astigarragan bertan jaiotakoei bakarrik eman ahal izango zaie, alegia, jai ondorengo lehen erroldatzea Astigarragako dutenei, baldin eta Astigarragako udalerriri eskainitako zerbitzuengatik berebiziki nabarmendu badira, araudi honetako lehen artikuluan ezarritakoaren arabera.

Ohorezko Seme edo Alaba Titulua aldiz, Astigarragan jaiotze arren, aurreko paragrafoko baldintzak betetzen dituzten pertsonen eman ahal izango zaie.

Bi tituluok, Astigarragako Seme edo Alaba Kuttuna eta Ohorezko Seme edo Alabarena, maila berekotzat hartuko dira eta ohore eta goraiapamen berekoak izango dira.

#### 5. artikulua.

Berekin dakarten ohore handia dela eta, Seme edo Alaba Kuttun Titulua eta Ohorezko Seme edo Alaba Titulua, kasu bereziberezietan bakarrik emango dira eta benetako onarpen eta eskerron kolektibozko arrazoiak daudenean soilik.

#### 6. artikulua.

Aurreko bi tituluak bizitza osorako izango dira eta hilondoko izaez ere eman ahal izango dira, beti ere zendutakoak lehen aipatutako merituak biltzen baditu.

#### 7. artikulua.

Astigarragako Seme edo Alaba Kuttun Tituluaren eta Ohorezko Seme edo Alaba Tituluaren aitortzea izendatuari egingo zaion erretratu bidez gauzatu da eta Udaltzatzaeraren serie bereko beste erretratuekin batera kokatuko da.

Batzar aretoa ohorezko izendapen ofizialen bat jaso duten pertsonen erretratu edo aipamenak kokatzeko bakarrik erabiliko da, une eta epe jakin batean beste zerbait jartzeko aukera ere egon arren.

Erretratuaren ezaugarriak ondokoak izango dira: figuratzailea-errealista, olio-pinturaz eta 25F neurriko bastidorean jarritako mihisean (81 cm x 65 cm) egina eta, izendatutako pertsona busto edo plano amerikarrez azalduko da, atzeko aldeak tonu neutroak izango ditu erretratuko pertsona nabarmentzeko. Nolanahi ere, neutraltasuna errespetatuz gero, atzeko aldeak Astigarragarekin zerikusia duen paisaia edo izendapenaren arrazoiak erakusten dituen alegia ere izan liteke. Lana egin aurretik, artistak hiru bozeto aurkeztuko ditu eta udal organo eskudunak horietako bat aukeratu ahal izateko.

#### 8. artikulua.

Titulua ematea onartu ondoren, Udaltzatzaerak adostuko du batzar aretoan erretratua noiz estalgabetuko den eta noiz emango zaion izendatuari, bere familiari edo ondorengoei edo ordezkari bati izendapena ziurtatuko duen Diploma.

Esandako Diploma pergamino artistiko batean egingo da eta, Astigarragako herriaren armariaren gain, izendapenaren arrazoiak eta bere oinarrian dauden merezimenduak labur jasoko ditu.

### Artículo 3.

Todas las distinciones referidas en este Reglamento tienen carácter honorífico, y no pueden conferir derecho económico o administrativo alguno.

## CAPÍTULO II

### DE LOS TÍTULOS DE HIJO O HIJA PREDILECTA Y DE HIJO O HIJA ADOPTIVA DE ASTIGARRAGA

#### Artículo 4.

La concesión del título de Hijo o Hija Predilecta de Astigarraga sólo podrá recaer en las personas nacidas en Astigarraga, es decir, aquellas cuyo primer empadronamiento sea en Astigarraga y que hayan destacado de forma extraordinaria por servicios prestados al municipio de Astigarraga según lo establecido en el artículo 1 de este Reglamento.

El de Hijo o Hija Adoptiva podrá otorgarse a las personas que no habiendo nacido en Astigarraga reúnan las condiciones del párrafo anterior.

Ambos títulos, de Hijo Predilecto o Hija Predilecta y de Hijo Adoptivo o Hija Adoptiva de Astigarraga, deben ser considerados como de igual jerarquía, y del mismo honor y distinción.

#### Artículo 5.

Por el gran honor que entrañan, la concesión de los títulos de Hijo Predilecto o Hija Predilecta, Hijo Adoptivo o Hija Adoptiva, sólo se concederán en casos excepcionales, y cuando haya motivos de verdadero reconocimiento y aceptación colectiva.

#### Artículo 6.

Los títulos anteriores tendrán carácter vitalicio y podrán ser concedidos a título póstumo, siempre que la persona fallecida haya concurrido de los merecimientos mencionados.

#### Artículo 7.

El reconocimiento de los nombramientos de Hijo Predilecto o Hija Predilecta e Hijo Adoptivo o Hija Adoptiva de Astigarraga, se realizará mediante la inclusión del retrato en la serie que figura en el Salón de Plenos del Ayuntamiento.

El espacio del salón de plenos se reservará únicamente para los retratos o menciones de las personas poseedoras de un título honorífico oficial, aunque de forma puntual puedan colocarse otros objetos.

Las características del retrato serán: figurativos realistas, realizados al óleo sobre lienzo en bastidor tamaño 25F (81 cm x 65 cm) en el que la persona distinguida aparecerá en busto o plano americano, y un fondo, en tonos neutros para que realce al retratado. Si se realiza respetando la neutralidad el fondo, también puede optarse por un paisaje relacionado con Astigarraga, o una alegía de los motivos por los que es nombrada la persona. Antes de ejecutar la obra, el artista presentará tres bocetos entre los que el órgano municipal competente pueda escoger.

#### Artículo 8.

Aprobada la concesión del título, la Corporación Municipal acordará la fecha en que habrá de descubrirse el retrato del Salón de Plenos y la entrega a la persona galardonada, su familia o sus descendientes o su representante del Diploma que acredita la distinción otorgada.

El expresado Diploma deberá extenderse en un pergamino artístico y contendrá el escudo de la villa y de manera muy resumida los merecimientos que justifican la concesión.

### III. KAPITULUA

#### HERRI MERITUAREN SARIA BURUZKOA

##### 9. artikulua.

Herri merituaren saria pertsona fisiko, entitate edo erakunde bati eman dakioke, jaiotza, bizilekua edo egoitza Astigarragan badu, bizirik egon ala ez, baldin eta jardura profesionalan edo pribatuan lan oso nabarmena egin badu, arte, lanbide, kultura edo gizarte arloan edo Astigarragako udalerrientzat bereziki interesgarria edo adierazgarria den ekintza edo jardura nabarmena egin badu.

Kapitulu honetan araututako sariak segidako moduren batean izenda daitezke egindako jardura edo ekintza motaren arabera: Lan Merezimendua, Kirol Merezimendua, Arte Merezimendua, Zientzia Merezimendua, Ohituren Ondorengoratzearen Merezimendua, Turismo Merezimendua, Gizarte Merezimendua, Kultur Merezimendua eta Udal merezimendua deituko zaio Astigarragako Udalarekin lankidetzan edo udalerriri laguntzeko egindako jardura multzoa saritzen bada.

##### 10. artikulua.

Herri Merituaren Saria jasoko duten pertsona edo entitateek Udalaren enkarguz egindako diseinua duen Foru plazaren bronzeko irudia jasoko dute.

Irudiak segidako idazkia izango du: «Astigarragako Herriak onespén eta esker onez» eta saria jaso duenaren izena eta sariematearen data.

### IV. KAPITULUA

#### OHOREZKO LIBURUAN SINATZEA

##### 11. artikulua.

Astigarragako udaletxean Ohorezko Liburua izango da, orriak behar bezala zenbakituak izango dituen, eta bertan sinatuko dute Udaletxera edo udalerrira etortzen diren pertsona ospetsuek, hala nola udalaren ohorezko izendapen edo sariren bat jasotzen duten pertsonak.

Ohorezko Liburua zaindu eta gordetzeko udaletxeko Idazkaritzaren bulegoan utziko da eta bertako langileek izango dute liburuaren zaintza, iraunarazte eta erabileraren ardura.

Udalbatzak proposatuko du nori dagokion sinatzearen ohorea, baina Ohorezko liburuan sinatzearen erabakia Alkatzak har dezake eta hala egiten denean udal osoko bilkurari horren berri emango zaio.

### V KAPITULUA

#### KALE, PLAZA EDO ERAIKIN PUBLIKOA IZENDATZEA

##### 12. artikulua.

Osoko Bilkurak kulturako batzorde informatzailearen irizpena jarraituz, kale, plaza, toki edo eraikin publikoak pertsona izenekin izenda ditzake, Astigarragan jaioak edo Astigarragatik kanpo jaiotakoak izan daitezke, baldin eta iraganean edo orainean udalerriarren goratzeari ekarpenik egin badiote edo udalerriarrek zerikusia ez izan arren, egiaztatutako meritu eta ospea duen pertsona bada.

Izendapen mota hau zendutako pertsonak bakarrik jasoko dute, heriotzaren datatik gutxienez bost urtera, denbora horretan pertsonaren ekarpena edo meritu behar bezala baloratu ahal izateko. Salbuespena Seme edo Alaba Kuttun eta Ohorezko Seme edo Alaba izendapena jasotzen duten pertsonak izango dira, beren izenak bizirik daudela erabili ahal izango direlako.

### CAPÍTULO III

#### DE LA MEDALLA AL MÉRITO CIUDADANO

##### Artículo 9.

La mención al Mérito ciudadano puede otorgarse a personas físicas o a entidades, cuyo nacimiento, domicilio o sede esté en Astigarraga, vivas o fallecidas, que hubieran llevado a cabo una labor muy destacada en el campo profesional, o particular de índole artística, laboral, cultural o social, o bien hayan realizado un acto o tarea relevante o de interés especial para el Municipio de Astigarraga.

Las menciones reguladas en este artículo, podrán llamarse de alguna de las siguientes formas, según la actividad, o suceso en que se fundamenten: Mérito al Trabajo, Mérito en el Deporte, Mérito en el Arte, Mérito en la Ciencia, Mérito en la Transmisión de Tradiciones, Mérito en el Turismo, Mérito Social, Mérito Cultural recibiendo el nombre de Mérito Municipal cuando se premie un conjunto de actividades realizadas para ayudar al municipio o realizadas en colaboración con el Ayuntamiento de Astigarraga.

##### Artículo 10.

Las personas o entidades merecedoras de este mérito recibirán una figura de bronce de Foru plaza diseñada por encargo del Ayuntamiento.

En la figura irá grabada la inscripción: «Astigarragako Herriak onespén eta esker onez», el nombre de la persona galardonada y la fecha de la concesión.

### CAPÍTULO IV

#### FIRMA DEL LIBRO DE HONOR

##### Artículo 11.

En el Ayuntamiento de Astigarraga existirá un Libro de Honor que deberá ser debidamente foliado, en el que firmarán aquellas personalidades que visiten el municipio o la Casa Consistorial, así como las que hayan recibido alguna distinción honorífica municipal.

El libro de Honor quedará depositado en las dependencias de Secretaría del Ayuntamiento, cuyo personal velará por su custodia, conservación y uso.

La Corporación Municipal propondrá la distinción de tal Honor, pero la decisión de la firma en el Libro de Honor podrá ser tomada por Alcaldía, y en ese caso dará a conocer su decisión al Pleno.

### CAPÍTULO V

#### NOMBRAMIENTO DE UNA CALLE, PLAZA O EDIFICIO PÚBLICO

##### Artículo 12.

El Pleno del Ayuntamiento a la vista del dictamen de la comisión de cultura, podrá denominar una calle, plaza sitio o edificio público con el nombre de personas, nacidas o no en Astigarraga, que en el presente o el pasado hayan contribuido al engrandecimiento del municipio o en el caso de no tener relación con el municipio, sea una persona de renombre y contrastado mérito.

Este tipo de nombramiento corresponderá a personas fallecidas, una vez transcurridos un mínimo de cinco años desde el fallecimiento, perspectiva de tiempo que permita valorar adecuadamente su aportación y méritos. Serán excepción las personas nombradas Hijos o Hijas Predilectas o Hijos o Hijas Adoptivas, cuyos nombres podrán utilizarse aún estando en vida.

VI KAPITULUA

PROZEDURA

13. artikulua.

Araudi honetan zerrendatutako sariak emateko, aurrez, dagokion espedienteari hasiera eman beharko zaio, eta horren barne txosten bat osatu beharko da. Txostenean, proposatutako ohore edo izendapena emateko edo ukatzeko dauden arrazoiak oso modu xehean adierazteaz gain, ondorio horretara iristeko egindako ikerketaren berri emango da, bildutako datu, aitorten eta aurrekariak adieraziz. Txostena jendaurrean jarriko da aldeko zein aurkako alegazio argumentatuak aurkezteko aukera emateko hilaibeteko epean.

14. artikulua.

1. Aurreko artikuluan aipatutako espediente Alkatetzaren dekretuz abiaraziko da, zuzenean bere ekimenez edo udalean ordezkariak duten alderdi politikoen eskariz, informazio batzordeek proposatuta edo herritarren eskariz eskaera behar bezala arrazoituta baldin badago, nolana ere, erabakia beti oinarrituko da adituen txostenean, beraiek adieraziko baitute izendapenerako nahikoa meritu dagoen ala ez.

2. Ekimena jasota, Alkatetzak espediente irekitzea aginduko du eta instruktore lanak egingo ditu eta espedientearen tramiteez arduratuko da.

15. artikulua.

Instruktoreak egokituz jotzen dituen izapideak egingo ditu izangaiaren merezimenduak zehaztu eta ikertu ahal izateko, eta aholkularitza eska dezake, beste pertsona edo entitate batzuei, kasurako behar dituen adina informazio eta iritzi jasotzeko.

16. artikulua.

Espediente bukatuta, Instruktoreak kultura batzordeari proposamen arrazoitua aurkeztuko dio eta honek dagokion irizpena osatuko du eta Udalbatzarrari helaraziko dio honek izendapena edo saria ematea onartu edo ukatzeko erabakia har dezan.

17. artikulua.

Bai Seme edo Alaba Kuttun Titulua eta Ohorezko Seme edo Alaba Titulua, bai merituaren sariak eta kale izendapenak, gehiengo osoaren aldeko botoekin erabakiko dira.

18. artikulua.

Udaleko idazkariak Astigarragako Udalak emandako oho-rezko sari eta izendapen guztien zerrenda egingo du, dagokion erregistro-liburuan idazpena eginez.

Izendapen edo sariak emandako hurrenkera kronologikoaren arabera idatziko dira, sarituaren izena, egoera pertsonala, saritua izateko arrazoiak, sari-ematearen data, jaiotze-data eta, dagokionean, baita heriotza-data ere.

19. artikulua.

Udalak Araudi honetan aipaturiko saria kendu edo izendapena indarririk gabe utz dezake, eta erregistro-liburuan agertutakoa baliogabetu, saritutako pertsonak egindako hutsigitearen larritasunagatik Udalbatzak muturreko neurri hori hartzea komenigarria dela iritzi gero. Horretarako, Udalbatzaren adostasuna eta saria emateko beharrezkoa den quorum bera beharko litzateke.

CAPÍTULO VI

PROCEDIMIENTO

Artículo 13.

Para la concesión de las distinciones enumeradas en este Reglamento será necesaria la instrucción previa del oportuno expediente, el cual contendrá un informe detallado de las razones que justifican la concesión o denegación de ese premio u honor; así como información sobre la investigación llevada a cabo para llegar a dichas conclusiones y los datos, declaraciones y antecedentes recogidos en la misma. Dicho informe se exhibirá públicamente durante un mes para que puedan presentarse alegaciones argumentadas tanto a favor como en contra.

Artículo 14.

1. El expediente referido en el precedente artículo será iniciado por Decreto de la Alcaldía, bien por propia iniciativa, a petición de los partidos políticos con representación en el Ayuntamiento, a propuesta de las comisiones informativas o a propuesta popular si está suficientemente razonada, pero la decisión se basará en el informe de personas expertas que indicarán si concurren méritos suficientes o no para el nombramiento.

2. Recibida la iniciativa, la Alcaldía dispondrá la incoación del expediente y actuará como Instructor/a, que se encargará de los trámites del expediente.

Artículo 15.

La persona instructora practicará las diligencias que estime convenientes para investigar y detallar los merecimientos de la persona propuesta, pudiendo solicitar el asesoramiento de otras personas o entidades, para obtener los elementos de juicio que requiera el caso.

Artículo 16.

Ultimado el expediente, la persona instructora presentará la propuesta razonada a la comisión de cultura, la cual emitirá el correspondiente dictamen y lo elevará al Ayuntamiento Pleno para que decida la concesión o denegación de la misma.

Artículo 17.

Tanto el Título de Hija o Hijo Predilecto y el Título de Hija o Hijo Honorífico, como el premio al mérito y las denominaciones de calles se acordarán con el voto a favor de la mayoría absoluta.

Artículo 18.

El/la Secretario/a municipal llevará relación de todas las distinciones honoríficas otorgadas por el Ayuntamiento de Astigarraga, mediante asiento en el correspondiente libro-registro.

Se inscribirán por orden cronológico de concesión, los nombres y circunstancias personales de cada persona distinguida, la relación de méritos que motivaron la concesión, la fecha de ésta, nacimiento y en su caso la de su fallecimiento.

Artículo 19.

El Ayuntamiento podrá privar de las distinciones otorgadas en base a este Reglamento, con la consiguiente cancelación del asiento en el libro-registro a las personas distinguidas que incurran en faltas que aconsejan esta medida extrema a juicio y por acuerdo de la corporación Municipal, adoptado con el mismo quórum exigido para su concesión.